

Liburuak

KRITIKA

Isilik kantatzeko.
Antton Kazabon.
Ibaizabal. 103 orrialde. 11,40 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Irudiari hitza jarritz

POESIA LIBURU baten aurrean gaude, baina hori bakarrik esatea ez litzateke zuzena izango. Antton Kazabonek 44 poema bildu ditu liburu honetan, baina orriak pasatzen hasi ahala bada irakurlea harritzen duen elementu bat, argazkiarena. Euskal Herriko bazter ugarritan ateratako koloretako argazkiak ageri baitira poema bakoitzaren ondoan, poemei laguntzen, poemekin liburu osatzen. Liburuaren atzeko azalean ageri den bezala “paisaiei begira jarri da argazkilaria. Une batez, argazkilaritari barruko sentipenak eta emozioak piztu zaizkio, eta argazki bakoitzaren alboan idatzi ditu sentimendu horiek”.

Alde estetiko edo formaletik, beraz, bitxia eta erakargarria da obra hau; paper sendoa, koloretako argazkiak, paisaia ederrak... eta horien ondoan poemak, estilo, tonu eta tematika ezberdinetakoak, argazkiek iradokitzen dutenarekin lotuak, Joxerra Garziak hitzaurre argi eta interesgarriak adierazi bezala.

Azken kontu horrek ere, hitzaurrearenak, berezi egiten baitu liburu; izan ere liburuetan, obra literarioetan, hitzaurreak gero eta arrotzagoak zaizkigun garai honetan, Garziak ederki azaltzen baititu liburu honen berezitasuna, liburu honen balioa eta poemetan idazleak erakutsitako abilezia eta aberastasuna.


Irudia eta hitza dira, beraz, liburu honetako elementu nagusiak. Eta hemen irudia islatzea zaila zaigunez, hona hemen hitzaren adibide pare bat, arestian aipaturiko estilo eta tematika aberatsaren adierazgarri: “Hango Hemengo./ Zure etorrian / noa. / Nire joanean/ zatoz. / Orain ni hangoa ere banaiz/ zu hemengo ere bazara./ Biok hango/ Hemengo” (29. orrialdea) eta haikuen iturrietatik edandako *Taupada, taupada* poema: “Taupada / taupada / maitasun huts” (47. orrialdea). Lehen poema horren kasuan neska bat ikus dezakegu argazkian, atzetik sorbalda zati bat eta burua, arroken kontra jo duen uhinari begira; bigarrenean, berriz, taupada taupada ari den horretan, Kontxako hondartza ageri zaigu ezker aldeko argazkiak.

Kazabonek gazte nahiz helduentzako poemak eskaini dizkigu liburu honetan; askotan komentatu izan den zehaztu gabeko muga horretan koka liteke obra hau, eta hori nabari da poemak egiterakoan erabilitako estiloan, sinbolismoan, metaforetan, jolasetan... baita gaietan ere. Maitasuna, lurrarekiko atxikimendua, gure ingurua, askotariko gaiak baitaude liburu interesgarri honetan.

Zalantzarik gabe, hainbestetan aipatu izan dugun bezala, idazle honen bide berriak eraikitze eta irekitze asmoaren beste adibide argia. ■

Aitor Aurrekoetxeak estetika modernoaz

Diziplina batzuei buruz gutxi idatzi da euskaraz eta horregatik eskertzen dira esploratu gabeko lurraldean menturatzen denaren kuraia. Aitor Aurrekoetxeak, berbarako, estetika moderno hartu du hizpide Hiria argitaletxearekin publikatu duen saiakeran. Kant, Schiller, Hölderlin, Hugo edo Baudelairen bidez, modernitatearen kontzientziaren



Estetika modernoaren inguruan...
Aitor Aurrekoetxea.
Hiria.
166 orrialde. 18 euro.

ikuspegitik artea hobeto ulertzen lagunduko diguten hausnarketak plazaratu ditu. Estetika garaikidearen auzi nabarmenatariko batzuk ere aztertzen ditu Aurrekoetxeak, besteak beste, ikerketa bisualek plantatzen dituzten erronkak edota Arthur Dantok artearen izaeraz egindako hausnarketak. ■

Bortxaketa baten ondorioak

Mozorro-festa baten ondoren, autoz bide bazter urrun batera eramane eta bortxatu egingo dituzte Sofia eta Lupe. Hara hor Marilar Aleixandre idazle galiziarren *Medusaren burua* liburuaren abiapuntua. Sofiak eta Lupek ondorengo egun eta hilabeteetan pairatuko dituzte bortxaketa-oren ondorioak. Jendearen begiradek ihes egiten dietela ohartuko dira eta momentu batean beraiek lotsatu beharko ote luketen pentsatzera iritsiko dira. Norbaitek minigona jantzi izana leporatuko die, agian? Jarri duten salaketa bertan behera uzteko eskatu? Gai arantzatsuan murgildu da Aleixandre haur eta gazteei zuzendutako eleberr honetan. ■



Medusaren burua.
Marilar Aleixandre.
Elkar.
252 orrialde.
18 euro.